

Gurasoak agur,

Mezu honen bitartez, ikastolako oharrak bidaltzen dizkizuegu.

OHAR OROKORRAK (OO)

OO. LOTERIA

Dakizuen bezala Gabonetako Loterian jarri adinako saria tokatu zaigu, hau da, txartel bakoitzeko 4 €. Ordainketa **ostiraletan, 14:00etatik 17:00etara** egingo da idazkaritzan. Kobratzeko azken eguna: martxoak 20.

OO. "TANTA" EKIMENA

Dakizuen bezala, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak **TANTA** proiektua jarri du martxan. [Informazio gehiago.](#)

Kontuan izan:

TANTA TXARTELA: 5 euro

SARIA: 60.000 euro

Salgai ditugu ikastolako idazkaritzan

OO. ETXEKOENTZAKO GUNEAN

Ikasturte honen hasieran, Ikastolako eraikuntza nagusiko lehen solairuan egin diren berrikuntza lanak probestuz, ETXEKOENTZAKO GUNEA atondu genuen. Gune horren helburua, zuekin hezkuntza eta kultura espazio bat partekatzea da.

Hemendik aurrera, saiatuko gara gune horretan eskuragarri dituzuen artikuluen, informazioen eta abarren berri ematen.

Une honetan, txikitako beldurrei eta jolas zakarrari buruzko hainbat artikulua, formazio batzuen informazioa, Hazi Hezi aldizkaria eta beste hainbat argitalpen dituzue.

Gustu baduzue, bertan dituzuen sofa erosoetan gai interesgarri horietan patxadaz sakontzeko aukera izango duzue.

HH OHARRAK (HH 2 - LH2)

HH. IRAKASLEAK FORMATZEN ETA ESPERIMENTATZEN

Gure irakasleak etengabe ari dira prestakuntza jasotzen eta hezkuntzaren hainbat alde aztertu eta esperimentatzen.

Une honetan, HH3ko irakasleak eta LH 1eko irakasleak, ingeleseko eta orientazioko kideekin batera, Ikastolen Elkarteak prestatzen ari den eskaintza berriaren prototipoak esperimentatzen ari dira.

Horretarako, lehenik, tutore horiek guztiak, Orientazio eta Ingeles departamenduko kideak, Orientatzailea, HHko koordinatzailea eta Dinamizatzailea formatzen aritu dira Ikastolen Elkarteak antolatutako saioetan.

Aurreko astean LH1eko eta aste honetan HH3ko irakasleak material berriaren prototipoa pilotatzen hasi dira.

Besterik gabe, jaso gure agurrik beroena.

ZUZENDARITZA

Estimadas familias,

Mediante el presente correo, les hacemos llegar las notificaciones referentes a actividades o información significativa.

OHAR OROKORRAK / NOTIFICACIONES GENERALES (OO)

OO. LOTERIA

Como sabéis, nos ha tocado un premio igual al que se puso en la Lotería de Navidad, es decir, 4 € por boleto. El abono se realizará **los viernes de 14:00 a 17:00 en Secretaría**. Último día de cobro: 20 de marzo.

OO. PROYECTO "TANTA"

Como sabéis, la Federación de Ikastolas ha puesto en marcha el proyecto TANTA.

PARTICIPACIÓN: 5 euros

PREMIO: 60.000 euros

Están a la venta en la Secretaría de la Ikastola.

OO. ESPACIO PARA LAS FAMILIAS

A principios de este curso, aprovechando las obras de reforma realizadas en la primera planta del edificio principal de la Ikastola, habilitamos un espacio para las familias. El objetivo de este espacio es compartir con vosotros/as un espacio educativo y cultural.

A partir de ahora, intentaremos dar a conocer los artículos, informaciones, etc. que tenéis a vuestra disposición en este sitio.

En este momento, tenéis varios artículos sobre los miedos de la infancia y el juego grosero, información de algunas formaciones, la revista Hazi Hezi y otras publicaciones.

Si os gusta, en los cómodos sofás que tenéis allí podréis profundizar tranquilamente en estos interesantes temas.

HAUR HEZKUNTZA / E. INFANTIL (HH 2 – LH 2)

HH. EL PROFESORADO EN FORMACIÓN Y EXPERIMENTACIÓN

Nuestro profesorado está continuamente recibiendo formación, analizando y experimentando diferentes aspectos de la educación.

En estos momentos, el profesorado de HH 3 y el de LH 1, junto con sus compañeros y compañeras de inglés y orientación, están experimentando los prototipos de la nueva oferta que prepara la Federación de Ikastolas.

Para ello, en primer lugar, todos estos tutores y tutoras, miembros del departamento de Orientación e Inglés, Orientadora, coordinadora de HH y Dinamizadora han estado formándose en las sesiones organizadas por la Federación de Ikastolas.

La semana pasada el alumnado de LH 1 y esta semana el de HH 3 comenzaron a pilotar el prototipo del nuevo material.

Besterik gabe, jaso gure agurrik beroena.

ZUZENDARITZA